

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO ERRIOXAKO UR PARTZUERGOA

Iturginaren (sareen mantentzea) plaza bat (1) lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta hautaketa prozesuaren oinarri arautzaileak, Arabako Errioxako Ur Partzuergoko lan kontratuko langileen plantillako plaza baten txanda kontratuaren esparruan

Presidentearen 2026ko martxoaren 6ko ebazpena dela bide, Arabako Errioxako Ur Partzuergoko lan kontratuko langileen plantillaren barruan plaza bateko txanda-kontratuaren barruan, iturginaren (sareen mantentzea) plaza bat (1) lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta hautaketa prozesuaren oinarri arautzaileak onestea erabaki zen.

Presidenteari dagokio hautaprobak arautzen dituzten oinarriak onestea, bai eta deialdia onestea ere, 7/1985 Legearen 102. artikulua ezarritakoaren arabera.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Errioxako Ur Partzuergoko lan kontratuko langileen plantillaren barruko txanda kontratuari dagokionez, oinarrietan agertzen diren E taldeko iturginaren (sareen mantentzea) plaza bat (1) (sareen mantentzea) lehiaketa bidez betetzeko deialdia arautzen duten oinarriak onestea.

Bigarrena. Dekretu hau erakundeko organo eskudunei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena. Oinarriak ALHAOn osorik argitaratzea, bai eta Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren iragarki taulan eta egoitza elektronikoan ere. Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, iragarki hau aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Guardia, 2026ko martxoaren 6a

Presidentea

PEDRO MARÍA RODRÍGUEZ UZQUIANO

**MEREZIMENDU LEHIAKETA BIDEZ, ITURGINAREN (SAREAK MANTENTZEA)
LANPOSTU BAT (1) TXANDA KONTRATUA ERABILIZ ETA IRAUPEN MUGAGABEZ
KONTRATATZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK**

LEHENENGOA. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da txanda kontratua erabili langile bat kontratatzeke hautaketa prozesua arautzea, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 12.7 artikulua xedatzen duenari jarraikiz, ur partzuergoko langile baten erretiro partzialeko egoerari lotuta.

Kontratazioa iraupen mugagabekoa izango da, txanda kontratuari doakiona, eta iturginaren lanbide kategoriari atxikitako plantillako egiturazko lanpostu bati lotuta egongo da.

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, 7/1985 Legean, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuan, aplikatzeko den tokiko araudian, partzuergoaren indarreko hitzarmen kolektiboan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan araututakoaren arabera erregulatuko da hautaketa prozesua.

Deialdiak berdintasun, merezimendu, gaitasun, publizitate, gardentasun, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioei men egingo die.

Kontratua formalizatzeko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko araudia bete beharko da, eta txanda kontratua eta ordeztzen den langilearen erretiro partziala justifikatzen duten legezko baldintzak bete beharko dira.

Lanpostuaren ezaugarriak:

Lanpostuaren izena	Iturgina. 1. mailako ofiziala
Araubidea	Langile lan kontratuduna
Kontratu mota	Txanda kontratua. Iraupen mugagabea, lansaio osoan
Unitatea/Arloa	Iturgintza. Hornidura eta saneamenduko sareen mantentzea
Lanbide taldea	(EB. Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren sailkapen taldea)
Eskatzen den titulazioa	Eskola graduatua, oinarrizko LH edo baliokidea
Hizkuntza-eskakizuna	2 (ez nahitaezkoa, merezimendutzat baliostekoa)
Eginkizunak	Adibide legez eta inolako mugarik ezarri gabe, kontratatzen den pertsonak, besteak beste, ondoko eginkizunak izango ditu: – Hornidura eta saneamenduko sareen prebentziozko mantentzea eta zuzentzailea – Hodietako, hartuneetako eta balbuletako matxurak konpontzea – Elementu hidraulikoak instalatzea eta aldatzea – Bide publikoan, zangetan eta espazio itxietan egin beharreko lanak egitea – Makinak eta lanabes espezifikoak maneiatzea – lhesak aurkitzea eta azpiegitura hidraulikoak kontrolatzea – Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea – Lanbide kategoriari dagokion beste edozein eginkizun betetzea
Hautapen sistema	Lehiaketa

BIGARRENA. Kontratu mota

Kontratu mota iraupen mugagabeko txanda kontratua izango da, lanaldi osokoa.

Kontratuaren iraupena mugagabea izango da. Kontratu hori erretiro partzialari heltzen zaion aldiarekin bat etorriko da. Erretiro partziala erretiroa hartzeko ohiko adina iritsi baino lehen has-ten bada, txanda kontratuak indarrean jarraitu beharko du erretiro partzialaren ondorio datatik erretiro partziala iraungi ondoko bi urtera arte, gutxienez.

Lanaldia eta iraupena.

Lanaldia astelehenetik ostiralera garatuko da, eta urtean 1.592 ordu emango dira, hau da, partzuergoaren lanaldi osoaren ehuneko 100. Asteburua izango da atsedeen eguna. Laneko ordutegia 7:55etik 15:00etara izango da, hau da, erakundearen erabili ohi den ordutegiarekin bat etorriko da.

Lanpostuak nahitaezko denbora prestasuna dakar (arratsaldeetan, jaiegunetan eta aste-buruetan lan egiteko prestasuna), 24 orduko arreta zerbitzua baita. Prestasun hori erakundearen sail bereko gainerako langileekin ezarrita dagoen akordioaren arabera aplikatuko da.

Txanda kontratuan aritzen den langileak gaur egun dagoen iturginaren lanpostuari dagokion kontratua beteko du. Lanpostu hori lehendik dagoen lanpostuaren kotizazio oinarriekin bat etorriko da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean araututako baldintzetan.

Ordainsaria.

Urteko ordainsari gordina 31.120,18 eurokoa izango da (aparteko ordainsarien hainbanaketa aintzat hartuta), eta horri 3.482,16 euroko zenbatekoa gehituko zaio, prestasunagatik.

HIRUGARRENA. Izangaiak onartzeko baldintzak

Txanda kontratua langabezian dagoen langile bati edo erakundearekin iraupen jakineko kontratu bat hitzartuta duen langile bati egin ahalko zaio, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 12.6 eta 7. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Gainera, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 56. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik, hautaketa prozesuan parte hartzeko, beharrezkoa izango da:

– Espainiako nazionalitatea izatea, aipatutako arauaren 57. artikulua xedatzen duena ezertan eragotzi gabe.

– Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

– Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea. Lege bidez soilik ezarri ahalko da enplegu publikoari heltzeko gehieneko beste adin bat, nahitaezko erretirorako adinaz bestelakoa.

– Diziiplina-espedita bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik edo autonomia erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetatik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko edo, lan kontratuko langileen kasuan, lehen betetzen zituen eginkizunen antzekoak betetzeko erabateko desgaitasuna edo desgaitasun berezia ez izatea. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziiplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere estatuaren baldintza berdintsuetan enplegu publikoari heltzea eragotzen duenik.

– Honako titulazio hau izatea: eskola graduatua edo baliokidea, oinarrizko LH edo baliokidea (iturgintza, beroa sortzeko instalazioetako teknikaria, mantentze elektromekanikoa edo antzekoa).

Eman beharrezko zerbitzuei buruzko ikastaroak egin izana balioetsiko da (ur hornidurako ikastaroa iturgintzat, iturgintzako instalazioetako teknikari ikastaroa, industria instalazioak mantentzeko ikastaroa, elektrizitate ikastaroa, elektromekanika ikastaroa).

– B1 motako gidabaimena izatea.

LAUGARRENA. Erreserbako txanda

Txanda kontratua erabiliz, plaza bakarra betetzeko deitzen denez ez da erreserbako txandarik ezarri.

BOSGARRENA. Eskabideak aurkezteko modua eta epea

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideetan (I. eranskina), jaso egingo da hautagaiek oinarri orokor hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela, eta Arabako Errioxako Ur Partzuergoko presidentetzara bidaliko dira, Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren bulegoetan aurkeztuta edo erakundearen Erregistro Elektronikoro aurkeztuta, edo, bestela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua jasotzen duen lekuren batean aurkeztuta, hogei egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera zenbatzen hasita.

Oinarriak oso-osorik argitaratuko dira partzuergoaren egoitza elektronikokoan (<https://www.consorcioaguasriojaalavesa.org>), eta erakundearen iragarki taulan.

Izangaiek deialdi honetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute, 1. eranskina arabera zehaztuta:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- c) «Prestakuntza» atalean jasotako baldintzen fotokopia konpultsatua: eskola graduatuaren titulua, oinarrizko LHa edo baliokidea.

Hala badagokio, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Deialdian eskatutakoa baino maila handiagoko titulazioak.
- Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak.
- Euskara: 2. HE, edo 1. HE.
- d) «Esperientzia» atalean aurkeztutako merezimenduen fotokopia konpultsatua. Hala bada-gokio, agiri hauek aurkeztu behar dira:
 - Administrazio publikoan instalazioen mantentze lanetako langile gisa lan egin izanaren egiaztagiria.
 - Deialdiko lanpostuaren eduki teknikoaren eta espezializazioaren antzekoak diren lanpostuetan administrazio publikoan zerbitzuak eman izanaren egiaztagiria.
 - Enpresa pribatuan instalazioen mantentze lanetako langile gisa lan egin izanaren egiaztagiria.
- e) Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplina espediente bidez herri-administrazioaren zerbitzutik bereizita ez dagoela dioen adierazpena.
- f) Administrazio publikoaren zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak xedatutako bateraezintasun kausaren batean erasota ez dagoelako adierazpena.

g) Honako oinarri hauei loturiko eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela dioen adierazpena. Desgaitasuna duten izangaiek organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzen dituen.

h) Lehiaketa fasean aurkeztutako merezimenduen fotokopia konpultsatua.

i) Deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako baldintza espezifikoaren fotokopia konpultsatuen bidez justifikatzea.

Datuen babesa.

Parte hartzeko eskabidean jasotako datu pertsonalak hautaketa prozesua kudeatzeko baino ez dira erabiliko, hau da, hautaketa prozesua bera garatzeko eta egin beharreko komunikazioak egiteko. Datu pertsonalak jasotzen dituen administrazio egintza bat argitaratu behar denean, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritako moduan argitaratuko da. Arabako Errioxako Ur Partzuergoa izango da datu horien tratamenduaren arduraduna.

SEIGARRENA. Izangaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, presidenteak ebazpena emango du hilabeteko epean, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartutzat joz.

Ebazpen hori erakunde honen egoitza elektronikoan (<https://consorcioaguasriojaalavesa.org>) eta, hala badagokio, iragarki taulan argitaratuko da, zabalkunde handiagoa izan dezan, eta hamar egun balioduneko epea emango da akatsak zuzentzeko.

Akatsak zuzentzeko epea igaro ondotik, presidenteak onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onetsiko du, eta erakunde honen egoitza elektronikoan (<https://consorcioaguasriojaalavesa.org>) eta, hala badagokio, iragarki taulan argitaratuko da, zabalkunde handiagoa izan dezan.

ZAZPIGARRENA. Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailearen osaera honako hau izango da:

- Presidentea.
- Idazkaria.
- Deialdiak zehazten dituen 3 mahaikide.

Epaimahai kalifikatzaileko kideen ordezkoak erregelamendu bidez zehazten direnak izango dira.

Epaimahaiak, hautaketa prozesuaren konplexutasunak hala beharrezko duenean, hautaketa prozesuan aholkulari espezialistak edo laguntzaileak erabiltzea erabaki ahalko du.

Epaimahaiko kideen abstentzioa eta errekusazioa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. Artikuluek diotenari jarraikiz egingo da.

Epaimahakideak era pertsonalean arduratuko dira deialdiaren oinarriak zorrotz betetzeaz, eta merezimenduak aitortu eta baloratzeko nahiz emaitzak argitaratzeko epeak arduraz betetzeaz. Epaimahaiak ebatziko ditu, gehiengoz, deialdi honetako oinarrien aplikazioa interpretatzean sortzen diren zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusi gabeko kasuetan egin beharrezkoak ere.

Izapide egintza kualifikatuen aurkako erreklamazioa aurkeztu ahalko da epaimahaiaren beraren aurrean, hiru egun balioduneko epean.

ZORTZIGARRENA. Hautatzeko eta prozesuak garatzeko sistemak

HAUTAKETA PROZEDURA: LEHIAKETA.

A) PRESTAKUNTZA: GEHIENEZ ERE, 30 PUNTU	
Deialdian eskatutakoa baino maila handiagoko titulazioak	Gehienez ere, 10 puntu
Prestakuntza edo hobekuntza ikastaro bakoitzeko	3 puntu. Gehienez ere, 15 puntu
Euskara	5 puntu (2HE) - 3 puntu (1HE)

Aipatutako puntuazioa titulazio bakarragatik aplikatuko da, eta lortutako maila handieneko titulazioagatik bakarrik.

B) ESPERIENTZIA: GEHIENEZ ERE, 45 PUNTU	
Administrazio publikoan instalazioen mantentze lanetako langile gisa lan egiteagatik	3 puntu urte edo 6 hilabetetik gorako frakzio bakoitzeko, gehienez ere, 15 puntu
Deialdiko lanpostuaren eduki teknikoaren eta espezializazioaren antzekoak diren lanpostuetan administrazio publikoan zerbitzuak emateagatik	3 puntu urte edo 6 hilabetetik gorako frakzio bakoitzeko, gehienez ere, 15 puntu
Enpresa pribatuan instalazioak mantentzeko langile gisa lan egiteagatik	3 puntu urte edo 6 hilabetetik gorako frakzio bakoitzeko, gehienez ere, 15 puntu

Beste administrazio batzuetan egindako zerbitzuak idazkaritzaren, korporazioaren edo erakundearen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, eta sektore pribatuan egindakoak, berriz, Gizarte Segurantzaren ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiri horrekin batera, dagokion lan kontratua eta lan bizitzaren egiaztagiria aurkeztu beharko dira, edo, azken agiririk ezean, jardun deneko kategoria jasotzen duen edozein.

Lehiaketa fasean berdinketa gertatuz gero, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 44. artikulua xedatutakoari men egingo zaio. Artikulu horrek ezartzen duenez, puntuazioan berdinketa gertatuz gero, artikulu honetako lehenengo atalean adierazitako merezimenduei emandakoa ebatziko da, ezarritako hurrenkeraren arabera. Berdinketak jarraitzen badu, lehiatzen den kidegoan edo eskalan karrerako funtzionario gisa hasi den eguna erabiliko da, eta, halakorik ezean, hautaketa prozesuan ateratako puntuazioa.

C) ELKARRIZKETA PERTSONALA. GEHIENEZ ERE, 25 PUNTU
Gehienez ere, 25 puntu

Aurreko idatz zatiren batean jasota ez dauden beste alderdi batzuk baloratuko dira, epaimahaiak modu askean balioetsita.

Lehiaketa fasea gainditu duten izangaiei elkarrizketa pertsonala egingo zaie. Elkarrizketa hori dagokion hautaketa batzordeak egingo du, eta honako gai hauei buruzkoa izango da: izangaia-
ren lanbide esperientzia, gaitasun funtzionala eta lortu nahi den lanpostuan jarduteko eskatzen diren ezaupideak. Horiek guztiak praktikan erakusteko eskatu ahal izango da.

Era berean, honako alderdi hauek balioetsiko dira: lanpostua betetzeko eskatzen diren antzeko eginkizunetan aritzean izangaia duen ezagutza eta autonomia maila, lanpostuarekiko motibazioa eta interesa, lantaldeetan integratzeko gaitasuna eta trebetasun zein ezaugarri pertsonalak.

Elkarrizketaren helburua trebetasun pertsonal hauetara ondoen egokitzen den pertsona identifikatzea izango da:

Hauexek baloratuko dira:

- Ezagutza teknikoak (0-8 puntu).
- Kasu praktikoak (0-7 puntu).
- Gaitasun profesionalak (0-5 puntu).

– Motibazioa eta prestasuna (0-5 puntu). Honako alderdi hauek balioetsiko dira: ikuspegi orokorra eta erabakitzailea; autonomia eta ekimena eginkizunak betetzean; zorrotasuna eta erantzukizuna; partzuergoaren gainerako arloei eta inguruari zerbitzua emateko bokazioa; emaitzak lortzeko orientabidea; komunikazio eta antolaketa trebetasunak; gaitasun digitalak; talde lanerako eta presio inguruabarretarako prestasuna.

Fase honetan, gutxienez 12,5 puntu lortu beharko dira.

BEDERATZIGARRENA. Kalifikazioa

Merezimendu guztien puntuazioa 0tik 100era bitartekoa izango da, eta 50 puntura iristen ez diren eta elkarrizketa fasea gainditzen ez duten izangaiak kanporatu egingo dira.

Azken kalifikazioa lehiaketa fasean lortutako puntuen batura izango da.

Hala badagokio, berdinketa honela ebatziko da:

1. Esperientzia arloko puntuazio handiena.
2. Prestakuntza arloko puntuazio handiena.
3. Puntuazio handiena elkarrizketan.
4. Zozketa publikoa.

HAMARGARRENA. Gainditu dutenen zerrenda, eskatutako baldintzak egiaztatzea eta kontratua formalizatzea

Prozesua amaituta, organo eskudunari hautagaiak proposatuko zaizkio kontratuak formalizatzeko, baina proposamen horrek ezin izango du inola ere deitutako plaza kopurua gainditu. Aurretik ezarritakoa urratzen duen edozein proposamen onetsia erabat deuseza izango da.

Hautaketa prozesuak praktikaldia edo probaldia izan dezake.

Organo eskudunak kontratuak formalizatu dituzte, deialdian eskatutako gaitasun baldintzak eta betekizunak egiaztatu ondoren (II. eranskina).

Kontratua formalizatutakoan, dagokion enplegu bulego publikoari jakinarazi beharko zaio, kontratua hitzartu eta hurrengo hamar eguneko epearen barruan; era berean, langileen legezko ordezkaritzari jakinarazi beharko zaio, egindako kontratuen oinarritzko kopia bat entregatuta.

Kontuan izan behar da izangaiek ez dutela inolako diruzko saririk jasotzeko eskubiderik izango kontratuok formalizatu eta dagozkien lanpostuetan hasi arte. Formalizatzen den lan kontratua Enpleguko Institutu Nazionalak eskura jarriko du, kontratu mota egokiaren arabera.

Txanda kontratua egingo zaio esleipendunari. Hala badagokio, hiru hilabeteko probaldia egongo da.

Probaldia.

Probaldia ezarri ahal izango da deialdian, eta horren iraupena proposatzen den izangaia lanpostuan hasten denetik aurrera zenbatuko da. Probaldia badagoela eta horren iraupena lan kontratuan adierazi beharko da.

Probaldiaren jarraipena egiteko ardura duten pertsonak txostena egin beharko dute, eta ondoren zehazten diren itemak baloratu beharko dituzte: lanerako gaitasuna eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren sena, ikasteko interesa, prestutasuna eta ekimena, lantaldean integratzea eta barneko eta kanpoko harremanetan egokitzea.

Probaldia hautaketa prozesuaren zati da, eta izangairen batek gainditzen ez badu, hautaketa prozesuari doazkion eskubide guztiak galduko ditu, eta baldintza berberetan deituko zaio puntuazioaren hurrenkeran jarraitzen duenari, betiere hautaketa prozedura gainditu badu.

HAMAIKAGARRENA. Lan poltsa eratzea

Lan-poltsa bat eratuko da hautaketa prozesua gainditzen duten eta kontratatzen ez diren pertsonekin, etorkizunean gaixotasun bajea eta abarren ondorioz aldi baterako lanpostu hutsak betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen deialdietan erabili ahal izateko.

Lortutako puntuazioaren arabera antolatuko da poltsa.

Dagokion lan poltsan parte hartu ahal izateko gutxieneko puntuazioa 50ekoa izango da.

Arabako Errioxako Ur Partzuergoan lan poltsan izena eman duten izangaiei deitzeko hurrenkera hautaketa prozesuan ateratako kalifikazioaren arabera egingo da.

Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 14. artikulua ezarritakoaren arabera, probaldia hitzartu ahal izango da idatziz, hitzarmen kolektiboetan ezarritako iraupen mugei lotuta, hala badagokio. Hitzarmenean itunik egon ezean, probaldia ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan teknikari tituludunentzat, ezta bi hilabetetik gorakoa ere gainerako langileentzat. Hogeita bost langiletik beherako enpresetan, probaldia ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan teknikari tituludunak ez diren langileentzat.

Eskaeraren lanpostu bati uko eginez gero, izangaia lan poltsako azken tokira igaroko da, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean izan ezik:

- Erditzea, amatasun baja edo antzeko egoerak.
- Lanera joatea eragozten duen gaixotasun larria, behar bezala egiaztatzen bada.
- Lanera joatea eragozten duen ordezkaritza kargu publikoa betetzea.

Eratzen den lan poltsak, gehienez ere, bi urteko indarraldia izango du.

HAMABIGARRENA. Errekurtsoak

Deialdia, oinarriak eta deialdiaren ziozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek lan arloko jurisdikzioan.

Administrazio bidea agortzen duten deialdiaren eta haren oinarrien aurkako demanda aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Lan Arloko Epaitegian edo, nahi izanez gero, errekurtsogilearen helbideari dagokion epaitegian. Demandarekin batera, ukatzeko ebazpenaren kopia edo administrazio errekurtsoa jarri edo ebatzi dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, dagokionaren arabera, eta horren guztiaren kopia erantsi beharko da erakunde mandatuari igortzeko, Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 69.2 artikulua xedatutakoarekin bat etorriz.

Oinarrietan aurreikusten ez den guztian, honako hauek aplikatuko dira: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarrii buruzkoa; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina; urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina; lan kontratuko langileei aplikatzeko itunak; eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginean jasotako lan kontratuko langileei aplikatzeko arauak.

Guardia (Araba), 2026ko martxoaren 6a.

Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren Idazkaritza.

Iturginaren (sareen mantentzea) plaza bat (1) lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta hautaketa prozesuaren oinarri arautzaileak, Arabako Errioxako Ur Partzuergoko lan kontratuko langileen plantillako plaza baten txanda kontratuaren esparruan

1. ERANSKINA

ESKABIDEA	
Lanpostua: ITURGINA (SAREAK MANTENTZEA)	Sarrera erregistroa
Deialdiaren erreferentzia ALHA0 zk.	
DATU PERTSONALAK	
Izena	
1. abizena	
2. abizena	
Jaioteguna	
NANa eta beste batzuk	
Jaioterria	
Nazionalitatea	
Sexua	
Posta elektronikoa	
Telefono mugikorra	
Telefono finkoa	
Helbidea	
Udalerria	
Lurraldea	
Posta kodea	
Aitortua du elbarriaren legezko izaera?	<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez
Elbarria bazara, adierazi azterketak egiteko egokitzapen berezirik behar duzun	

DEIALDIAN ESKATUTAKO BETEKIZUNAK	
Titulua	
Gidabaimena	<input type="checkbox"/> Bai
ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU DIREN AGIRIAK	
NANaren fotokopia	<input type="checkbox"/> Bai
Nortasun agiria (atzerritarra izanez gero)	<input type="checkbox"/> Bai

DEIALDIARI BURUZKO DATUAK	
LAN POLTSA: Prozesu honi loturiko lan poltsan parte hartu nahi dut	<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez
Lan egoera:	

BESTE AGIRI BATZUK	
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	
16	
17	
18	
19	

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaprobetan onartua izan dadila, eta ADIERAZTEN DU bertan jasotako datuak egiazkoak direla eta oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela, eta konpromisoa hartzen du eskatzen zaizkion unean modu frogagarrian egiaztatzeko.

Sinadura.

.....(e) n, 2026koaren(e)(a) n.

Iturginaren (sareen mantentzea) plaza bat (1) lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta hautaketa prozesuaren oinarri arautzaileak, Arabako Errioxako Ur Partzuergoko lan kontratuko langileen plantillako plaza baten txanda kontratuaren esparruan

..... jn./and. NANA
duenak eta jakinarazpenen ondorioetarako ondoko helbidea duenak:
.....

ADIERAZTEN DU

(Hala dagokionean, adierazi X batez).

Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta, diziplina espedientea dela kausa, administrazio publikoaren zerbitzutik bereizita ez dagoela.

Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak xedatutako bateraezintasun kausaren batean erasota ez dagoela.

Honako oinarri hauei loturiko eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela. Desgaitasuna duten izangaiek organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzen dituenak.

Sinadura.

.....(e) n, 2026koaren(e)(a) n.